



# txi kitto!



**Zatoz  
Olentzerorekin  
abestera!!!**



# ↑ taxis beak

## Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte  
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

## Erredakzio kontseilua

Maider Aranberri, Ana Aizpurua,  
Ekhi Belar eta Eibarko ikastetxeetako  
ordezkariak.

## Administrazioa

Marisol Uriarte.

## Erredakzioa

Maider Aranberri eta Ekhi Belar.

## Maketazioa

Ana Aizpurua.

## Azaleko argazkia

Maialen Belaustegi

## Banaketa arduraduna

Ainhoa Luz.

## Copyright-a

Txikitto!

## Lege-gordailua

SS-1111/96

✓ Egun batean Osasuna taldeko jokalaria hegazkinean zeuden eta esan zuen batek:

- Pisu gehiegi dago! Pisu gehiegi dago!

Orduan maletak bota zituzten.

Eta berriz entzun zen:

- Pisu gehiegi dago! Pisu gehiegi dago!

Eta pilotukidea bota zuten. Hegazkina orekatzeko

Osasunako jokalaria bet erdi-erdian jarri zen: talde erdia hegal batean zintzilik jartzen da eta beste erdia beste hegalean. Erdi-erdian zegoenak esaten du bat-batean:

- Ooooooosasunaa!!!

Eta entzuten da txalo artean:

- La, la, la, la, la, laaaaa!!!

Denak erori ziren erdian zegoena izan ezik.



✓ Banpiro baten ahotik odola dariola ikusi du bere adiskidea:

- Aizu! Baina non lortu duzu horrelako odol pila?

- Zatoz nirekin eta ikusiko duzu!

Kaleko horma bat erakusten dio esanez:

- Ikusten al duzu horma hori?

- Bai! –Erantzun dio adiskideak.

- Ba... nik ez dut ikusi!



✓ Markelek aitari:

- Aita! Aita! Zergatik egin du matematikako koadernoak bere buruaz beste?

Eta aitak:

- Problema asko dituelako!!



Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak  
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak  
diruz lagundutako argitalpena



Gipuzkoako Foru Aldundia



✓ - Izeba, zergatik dauzkate hegaztiak lumak?

- Lumarik gabe oso itsusiak izango liratekeelako.

- Eta orduan zergatik ez dituzu zuk ere lumak jazten?



✓ Bi mutil zeuden eta esan zuen batek:

- Nire osaba bati, gerran egon zenari, tiroa jo zioten begian eta kristalezkok begi bat jarri behar izan zioten. Orain begi ona estaltzen du eta kristalezko begiarekin dena ikusten du.

Orduan beste mutikoak:

- Ba, nire osabari, gerra berean egon zenari, hatz txikian tiro bat jo zioten eta orain, hatzaren tokian, titiburu bat dauka.

Tabernara joaten denean kafe bat eskatzen du eta titiburutik esnea botatzen dio kafeari.

- Hara! Hori ikusteko dago!

- Bai, zure osabaren begiarekin!



✓ Jaimitok egun batean lan pertsonal bat zeukan eta bere lagunari kopiatzen ari zitzaion, baina bere lagunak ez zekien galderaren erantzuna eta "Ez dakit" idatzi zuen. Orduan, Jaimitok, erantzun zuzena jarri beharrean edo gutxienez "Ez dakit" jarri beharrean, "Nik ere ez" jarri zuen. Hurrengo egunean, irakasleak zero handi bat jarri zion eta Jaimitok esan zion:

- Zergatik ba? Dena ongi daukat eta...

Eta irakasleak:

- Kopiatu egin duzulako!

# Denborapasak


## Hizki-zopa

### KOLOREAK


B	B	G	O	R	R	I	A	H	M
G	E	U	G	D	A	J	J	O	N
L	R	R	K	M	L	A	R	A	U
A	B	D	D	A	I	R	O	P	L
R	E	S	A	E	Z	A	H	R	I
A	J	N	R	R	A	L	S	U	N
N	L	A	R	O	R	Z	F	J	
J	U	R	O	M	R	D	G	N	D
A	N	G	S	D	A	O	R	I	R
U	A	I	A	B	B	R	H	B	U

- Gorria
- Laranja
- Horia
- Berde argia
- Berde ilun
- Urdin argia
- Urdin ilun
- Horea
- Arrosa

## Labirintoa




Maia Alcega



## AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **Martin Cortina** izan da. Ipuina eta ...eta kitto!ko sudadera eraman ditu etxera Martinek. Zorionak!!!

## 7 desberdintasunak



BIDALI ERANTZUNAK URTARRILAK 10 BAINO LEHEN  
**...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA.** Urkizu 11. Eibar.

Izen-abizena .....

Adina .....Tel.....

# Denborapasak

## Hizki-zopa

\* Aurkitu izen hauek 8

G	R	I	U	R	E	U	A	T	R	A	M
G	R	I	Z	A	M	S	K	O	E	A	G
O	I	N	D	A	A	U	B	A	I	E	N
R	A	I	K	E	R	B	I	T	H	A	R
K	E	G	U	Z	I	O	A	K	I	A	M
A	E	G	I	N	A	N	G	J	L	O	A
D	A	U	A	N	E	E	Z	O	E	R	
R	U	R	A	E	U	G	I	S	K	T	H
E	A	N	B	A	S	D	U	U	I	E	E
Z	T	I	N	G	O	O	D	N	M	U	L
G	I	U	F	A	J	M	E	L	I	A	
M	A	I	A	L	E	N	R	E	K	E	N
J	O	L	A	N	A	R	O	A	S	T	U
E	T	X	E	K	A	N	P	O	R	A	N

- \* Izaro
- \* Maitane
- \* Ane
- \* Marta
- \* Maialen
- \* Markel
- \* Mikael
- \* Aitana
- \* Iker
- \* Oier
- \* Gorba
- \* Maria
- \* Josune
- \* Josu
- \* Narca

\* Buhatzen duzanean, sortu esaldiak soberan dauden hitzekin:

Ane Miren Gomez

## Sudokua

	5	7	3	8				
		1			7		5	
				9				4
	1	2	8			6		
				1			2	
	3				6			
	2			7			4	

Ines Gutierrez



**ARRATEKO ANDRA MARI** ikastetxetik kaixo lagunok! Hemen gaude Gaztainerre, San Andres eta Euskararen Eguna ospatu berri. Horrez gain, beste ekintza batzuk ere egin ditugu eskolan:

azaroan Baikorak antolatutako tailer batzuk izan zituzten 1., 3. eta 5. mailakoek, jolasaren bitartez elkar onartzen, erronkei aurre egiten eta gatazkak konpontzen ikasteko. LHko ikasleek Capoeirako ikastarotxo bat ere egin dute eta abenduan Legazpin egon ziren lehen ziklokoak Olentzeroren etxea bisitatzen.



**Gaztainerre, bihotzerre!!!**

Azaroaren 13an **JUAN ANTONIO MOGEL**

ikastolan Gaztainerre eguna ospatu genuen. Iturburuko aretoan ikasle zein irakasle guztiak batu eta jaialditxo bat egin genuen. Asteazkenean zehar taldeka zuhaitz baten horma-irudian gaztainak itsasten joan ziren ikasleak, euskararen erabileraren arabera. Primeran hartu zuten parte eta gaztain ugari biltzea lortu zuten. Errekiñaren abestiak eta Euskaraz bizi nahi dut dantzak alaitu zuten ospakizuna. Bukatzeko, gaztain erre, goxo eta beroak dastatzeko aukera izan genuen.

**ALDATZE**

ikastetxean Probidentziaren Eguna ospatu genuen azaroaren 24an. Jai giroan, ikasle nagusiek antolatzen dituzten ikuskizun, taberna, zozketa, ileapaindegia eta beste txoko batzuetan parte hartzeko aukera izan genuen. Jarduera horietan lortutako dirua gure Cuzco-ko (Peru) lagunei bidaliko diegu!



**URKIZU** ikastetxeko

lehenengo mailako ikasleek erakusketa dotorea prestatu zuten lantzen ari diren proiektuari bukaera emateko: benetan gauza politikak ikusi ditugu. Euskal Diskoteka ere martxan jarri dugu, jolastokian asteazkenean behin euskal musikarekin dantza-saioak antolatuz: ume eta irakasleok primeran pasatu dugu. Azkenik, urtero bezala, Guraso Elkartearen gurasoek danboliflean gaztainak erre eta umeen artean banatu zituzten Gaztainerre egunean.



Agur bero bat **AMAÑA** ikastetxeko 5. mailako ikasleen aldetik!

Urriaren konturatu ginen gure baratzeko landare gazteak harrak jan zituztela. Ez genuen tratamendu kimikorik nahi eta erabaki genuen harrak harrapatzea. Maisuarekin jaitsi, mordoxka bat harrapatu eta kristalezko poteetan edo hemengo akuarium txiki batean sartu genituen. Jateko hostoak ekartzen genituen eta harrituta gaude zein arin jaten dituzten! Harrak euren larbetan gordetzen joan ziren eta handik aste batzuetara tximeletak jaio ziren argazkiak ikusten duzuen bezala. Orain badakigu harrek kalte egiten diotela gure baratzari baina bertatik tximeleta ederrak sortzen direla.



Abenduaren 4an

Euskararen Eguna ospatu genuen **LA SALLE** ikastetxean.

Argazkian ikusten duzuen moduan horma-irudia egin genuen eskuekin eta Eskueta kantuararekin dantza eginez zoragarri pasatu genuen. Horrez gain, 4. eta 5. mailakoak Lurraskan egon dira naturaz gozatzeko.



**SAN ANDRES** ikastetxean ere pozarren ospatu dugu San Andres eguna. Goiza txistorra eta taloak jaten eman genuen eta arratsaldean, berriz, euskal dantzak egin eta primeran pasatu genuen!




# Emon eskua euskeriari!

Abenduaren 3an, domeka, EUSKARAREN EGUNA jai giroan ospatu genuen eibartarrok. Auzoetatik Untzagaraino kalejiran irten ginen eta Eibarko kaleetatik kantuan jardun genuen. Untzagan, eskuak margoan busti eta oihaletan inprimatu genituen, euskerari eskua ematen diogula irudikatuz. Ondoren, 400 pertsona elkartu ginen Bizimiña elkarteak prestatutako paella gozoa jateko. Hozari aurre egiteko Parrapas erromeria taldeak emanaldi bikaina eskaini zigun bazkalostean.










## GABONETAKO ZUHAITZA

Gabonak ate joka ditugu. Etxea apaindu nahi duzue? Ba jarraitu hurrengo pausoak!



### MATERIALA

- ✓ Inprimagailua.
- ✓ Paper polita.
- ✓ Kartulina.
- ✓ Kola.
- ✓ Guraizeak



### PAUSOAK

- 1.- Plantilla marraztu eta moztu.
- 2.- Koloretako kartulinak hartu eta plantillaren gainean itsasteko zatiak moztu.
- 3.- Apaingarri batzuk sortu.
- 4.- Barruko hirukiaren forma duen beste kartulina bat moztu.
- 5.- Dena itsatsi eta barruko partean Gabonetako mezua idatzi.

**Ti-ta!**

## ARKATZ ONTZIA

Komuneko biribilkietako bat osorik utzi eta besteari laurden bat moztu. Zati horrek geroago borragoma jartzeko balioko du. Gero, kolore bakoitzeko paper-zerrenda batzuk moztu. Biribilkiak kolarekin forratu eta lehortzen utzi. Ondoren, kartoizko oinarriak margotu. Jarraian, akrilikoekin kartoia margotu eta kitto!



# ARROZA OILASKOAREKIN



## OSAGAIK (4 LAGUNENTZAT)

- ✓ Oilasko-bularki bat edo hezur gabeko bi oilasko-izter.
- ✓ 400 gr. arroz.
- ✓ 4 berakatz.
- ✓ Perrexila.
- ✓ 2 tomate.
- ✓ Gatza.
- ✓ Kurkuma koilarakada bat.
- ✓ Oliba-olioa.
- ✓ 1,5 l oilasko-salda edo ur.

## PAUSOAK

- 1.- Oliba olio pixkat zartaginean bota eta oilaskoa salteatu.
- 2.- Berakatz, perrexila eta gatzarekin nahasketa egin, eta oilaskoari gehitu eta pixka bat kozinatu. Tomatea ere txikitu eta zartagineara gehitu
- 3.- Arroza kurkumarekin salteatu eta oilaskoari gehitu.
- 4.- Oilasko-salda gehitu eta su motelean kozinatu 18 minutuz.
- 5.- Sua itzali eta bi minututan jalki zerbitzatu aurretik.



# OLO GAILETAK



Olo-malutak, irina, azukrea, legamia eta gatza ontzi batean jarri eta nahastu. Beste ontzi batean arraultzak, olio eta esentzia nahastu, eta aurrez egindako nahasketarekin gehitu. Bolatxoak egin, eskuarekin zapaldu eta labean sartu. 12 minutuz berotu 180°-tan. Labetik atera, hozten utzi eta jateko prest egongo dira.

Urkizu ikastetxean ikastaro berezia egin berri dute, Capoeira zer den eta nola egiten den ikasteko aukera izan dute Jon maisuaren eskutik. Brasilgo gorputz-espresioaren modu zaharrena den honek hainbat kulturatako dantza, borroka eta musika-tresnak nahasten ditu. 6 umek erantzun dizkiete gure galderei baina bertan izan ziren Hajar, Amr, Ana, Eneko, Fariel eta Markel eta Onintza irakasleak ere, azalpenak ematen. Eskerrik asko talde!



## Zer egin eta ikasi duzue Capoeira-ikastaroan?



**Markel Hernandez**  
10 urte

Capoeirak dantza eta arte martzialak nahasten ditu. Ez nuen ezagutzen, orain jakin dut zer den. Gehien gustatu zaidana capoeira egiten ikasteko ariketak izan dira. Hasieran pixkat zaila egiten da baina gero ez da hainbesterako. Errepikatu egingo nuke eta capoeira egiteko aukera duten umeei animatzeko esango nieke, oso dibertigarria delako.



**Aaron Jebari**  
11 urte

Arte martzialak musikarekin eta dantzarekin nahastu ditugu, hori da capoeira. Jon maisua oso jatorra da eta oso ondo pasatu dugu. Hasieran uste nuen zailagoa izango zela baina ez da hainbesterako. Errepikatuko nuke, eta gustora gainera.



**Kiara Rueda**  
10 urte

Erritmo brasildarrekin mugimenduak, pinoa, txiribuelak eta borrokak egin ditugu, baina ez da benetako borroka izan, borroka itxura egin dugu. Lehendik ezagutzen nuen zeozer eta orain askoz ere gehiago. Izugarri gustatu zait. Musika-tresnak ere erabili ditugu, marakak, panderetak... eta abestu ere egin dugu.



**Reina Mayitondelua**  
11 urte

Brasiletik dator eta dantza eta arte martzialak nahasten ditu. Askok gustatu zait, oso polita izan da eta lagunekin gauza berriak ikasten oso ondo pasatu dut. Zer gustatu zaidan gehien? Den-dena. Jon maisua ere oso jatorra da. Beste umeak ere animatuko nituzke capoeira probatzera, ikusiko dute zein ondo pasatzen den!




**Dalia Bensellam**  
11 urte

Borroka itxura egiten da baina ez dago kontakturik. Ezin da ez minik eman ez minik hartu. Mugimendu guztiak musikarekin egin ditugu. Maisuak erritmoa jartzen zigun eta guk dantza egiten genuen. Gehien gustatu zaidana musika izan da, musika brasildarra.



**Jessica Ngengo**  
9 urte

Aurrez ez nuen sekula entzun capoeira izena, berria zen niretako. Hasieran pixkat urduri nengoen, ez nekielako zer izango zen, baina gero asko gustatu zait. Maisuak zenbaki bat esaten zigun eta guk zenbaki horri zegokion mugimendua egiten genuen. Jon-ek ingelesa ere ematen digu eta hasieran arraroa egiten zitzaigun ingeleseko maisuarekin capoeira ikastea!



**IKAZKINA OLENTZERO BIHURTU ZEN (6 URTEK AURRERA)**

Bazen behin ikazkin bat, hartzea baino ematea nahiago zuena. Behin batez, mendia utzi eta hirira jaitsi zen ikazkin hura... Ipuin miragarri bat idatzi du Arnalek, ametsetako magia istorio sinesgarri baten bidez kontatzen diguna?



**ERREKAK OILOARI (8 URTEK AURRERA)**

Zubia erreka inbidiatan bizi da. Astoa eta oilarra, beti sesioan. Otsoak zakurra izan nahi du eta zakurrak otso. Euria eta elurra, berriz, ez daude gustura daukatenarekin. Katua eta sagua ez dira elkarrekin batera moldatzen... Askotan zenbat kostatzen zaigun gure alderdi on eta atsegina ikustea eta onartzea. Iruditzen zaigu besteak hobek direla; besteek beti zorte ona dutela eta guk, berriz, txarra. Eskerrak gu bezalakoak ez direnak, aurrez aurre jartzen zaigun ispilu baten moduan, erakusten dizkiguten gure alderdi onak, eta laguntzen diguten gure gabeziak elkarren osagarri direla konturatzen.



**AKATS BAT LEHENENGO LERROAN (10 URTEK AURRERA)**

Ingek argi zuen bere bizitzaren lehenengo lerroan akats bat zegoela, eta hori zuzentzen hasteko, bere buruari Gartxot izena jarri zion. Horrenbestez, Gartxot bere benetako izena da orain, eta Inge, aldiz, plastikozko izena. Istorio luze bezain aldrebesa eman dezake esandakoak, baina erraz ulertzeko modukoa Haitz eta Noaren ahotik. Gartxoten gelakideak dira Haitz eta Noa, gelako kazetari finak, bertan gertatzen diren istorio eta pasadizoen kontatzaile iaioak.

**“HARRI – ORRI – AR”  
(AMAÑA IKASTETXEA)**

‘Harri – orri – ar’ jokoak ezagutzen duzue, ezta? Harriak artaziei irabazten die, orriak harriari eta artaziek orriari. Bada Amaña herri ikastetxeko 5. mailako ikasleek joko honen beste aldaera bat proposatzen digute.

Bi talde egin behar dira eta talde bakoitzetik banan-banan irtengo dira lehiakideak. Lurrean markatutako lerrotik korrika eginez elkarrekin topo egiten dutenean, ‘harri – orri – ar’ egin eta irabazleak aurrera jarraitzen du. Lehiakideak bere bidean arerio guztiak garaitu eta beste taldea dagoen tokira heltzen bada, bere taldeak puntu bat lortuko du.

BIDEOA:

<http://etakitto.eus/txikitto/amana-ikastetxea.html>

**Jolastokixan jolasian**





### Astelena Gabonetako Haur Parkea

2-12 urte bitarteko umeentzat.  
Abenduak 23, 26, 27, 28, 29 eta 30,  
eta urtarrilak 2,3 eta 4. 11:00-14:00 / 16:30-20:30.  
Astelena frontoian.

### Olentzero

#### Abenduak 24, igandea

- ✓ 11:30ean Zatoz Olentzerorekin abestera! Kalejira Urkizutik hasita Untzagaraino.
- ✓ 12:30etik aurrera Olentzero umeekin egongo da udaletxean azken eskutitzak jasotzeko.

#### Abenduak 28, osteguna

- ✓ Alizia lurralde miresgarrian antzerkia. Coliseon 17:00etan. 5€.
- ✓ 09:00-12:30 Erregeen Kabalgata egunean Ipurua kiroldegian egingo den dantza-ikuskizunerako txartelak banatuko dira, udaletxeko patioan.

### Erregeen kabalgata

#### Urtarrilak 5, ostirala

- ✓ 17:00: Dantza-ikuskizuna Ipuruako kiroldegian.
- ✓ 19:00 Errege Magoen Kabalgata.

### “Aratosteak Eibarren” kartel-lehiaketa

Lanak aurkezteko epea abenduaren 26tik urtarrilaren 16ra arte. Informazioa Pegoran.





# PLANETATIK PLANETARA

**A**i, ez! Gero eta zulo handiagoa dago atmosferan eta dena Xermendiko biztanleek gehiegi kutsatzen dutelako da, beno, gehiegi baino gehiago. Gero eta jende gehiago hiltzen ari da, izpi ultramoreetatik babestu ezin

direlako eta ni ez naiz inor lege bat ezartzeko!  
Nire izena Pirti da eta nire kotxeak urarekin funtzionatzen du, ez gasolina txatxu horrekin, ez du kutxatu besterik egiten eta. Mundua oso kutxatuta dago!

Egia esan bai politikoak eta baita erregeak ere, urduri dabilta atmosferaren kontu horrekin eta ideia egoki baten bila gabiltza. 2092. urtea da eta diotenez 2096. urtean ezin izango gara lurrean egon. Ideia bat behar dute, baina egokia.

- Eeeeeeeeeeh, ez daukat ideia egokirik, eeeeeh, eeeh, ppppprrrrrrrrrrr...

**BADAKIT!!!!!!!**

Gaur egungo mundua oso modernoa denez, milioika eta milioika espaziontzi eraiki eta bizitzeko beharrezkoak ditugun gauzekin batera Martera joaten bagara... BAI!!!!

Oso ideia ona etorri zait burura eta orain erregeari abisatu behar diot. Honako hitz hauekin azalduko diot:

- Maiestate jauna, entzun dut ahoz-ahoz dabilen zurrumurrua, atmosferaren kontua, eta guzti horrena. Gau eta egun ibili naiz ideia egoki baten bila. Hainbat etorri zaizkit burura baina bat ere ez da egokia izan. Baina azkenean ideia bat bururatu zait, nik uste dut zentzuzko ideia dela, baina tira. Pentsatu dudana hau da: mundu moderno bat dugunez milioika eta milioika espaziontzi eraiki genitzakeela eta beharrezkoak ditugun gauzekin batera Martera joan gaitzakeela bizitzera.



Beno, espero dut nire ideiak balio izatea. Eta hala izan da, ideia onartu du, gainera euren artean hitz egin, eta, agintari izendatu naute. Hau bai poza, oraintxe bertan aginduko dut espaziontziak eraikitzen eta eraman beharreko gauzak prestatzen hasteko. Dirudienez, espaziontzi bat eraitzeko egun oso bat behar da, pentsatu milioika eraikitze!!!!

Urduri eta pozik nago aldi berean, nire esku dago dena! Eta gaizki irteten bada nire errua izango da, eta akabo!!!

**2096.** urtea da eta behar dugun guztia prest dago. Atzo bukatu genituen espaziontzi guztiak. Eskerrak denbora eduki dugun!

Baina adituek kalkulatu dutenez, Marten ez dago bizitzerik. Ura badago eta atmosfera ere bai, baina ez dago tenperatura egokirik, hotz handiegia egiten du -40°. Eguzki izpiak ez dira ondo heltzen lur planeta erdian dagoelako. Martera heldu behar ziren izpiak lurra hartzen ditu.

Momentu onean konturatu dira!!!!

Espaziontziak eraikitzerakoan misil erraldoi bat eraiki zuten badazpada. Hori esanda konturatu naiz, Martera joan eta misila bertatik botatzen badugu, lurra suntsi genetzakeela eta horrela eguzki izpiak ondo helduko direla!! Bai, ideia ona da hori egingo dugu.

- AGUR! ESPAZIONTZIA ITXAROTEN DAUKAT!!!!

**Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...**



zu margolari